

**1. ZENBAKIAK  
ETA KOLOREAK**  
**LORENTXOREN  
BUKAERAKO GUTUNA**

Kaixo, neska-mutilak!

Zer moduz zabiltzate?

Hemen naiz berriz ere, zuek agurtzeko eta zuekin pixka bat jolasteko. Beno, nik zuen hezitzaileari utziko dizkiot jolasteko fitxak, berak zuei erakusteko eta denon artean jolasteko. Gustatzen al zaizkizue? Beno, kontatuko didazue. Zenbat kontu azaldu behar dizkidazuen!

Gai honi amaiera emateko, azken aste hauetan ikasitakoa erabiltzeko aukera izango duzue; koloreekin eta zenbakiekin pailazoak margotuko dituzue. Pailazoak aukeratu ditut politak direlako, alaiak direlako, eta barre eragiten digutelako.

Fitxak margotutakoan, nahi izanez gero, gela alaitzeko puxikak putz ditzakezue eta sabaitik zintzilik jarri. Beno ez dakit sabairaino helduko zareten, ba al da inor hain altua? Orduan, arbelean edo horman ipini beharko dituzue!

Laster arte!

Lorentxo

